

TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN: ARABA ERDIALDEA 2016/06/11

Kokalekua: Europa Jauregia (Vitoria-Gasteiz)

Iraupena: 2 ordu eta 45 minutu

Parte hartzaileak

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Pedro Inchaurtieta	Zigoitia	----
Alfredo Sáez del Castillo	Vitoria-Gasteiz	----
Yolanda Armentia	Vitoria-Gasteiz	UAGA
César Izar de la Fuente	Otazu	UAGA, Agricultor
Carlos Yarza	Peñacerrada y Lagrán	Arquitecto de la Cuadrilla de Montaña, Peñacerrada y Lagrán
Iker Gómez	Vitoria-Gasteiz	Zabalortu (Huertos urbanos de Zabalgana)
Marta Villota Gálvez	Vitoria-Gasteiz	Viasilva
Mari Carmen Paniagua	Vitoria-Gasteiz	Ayto. de Vitoria-Gasteiz
Ieltxu Oruetta	Laudio	EH Bildu
Jesús Berganza	Ribera Alta	Alcalde de Ribera Alta
Amaya Lekuona	Vitoria-Gasteiz	----
Iñaki Burguera	Vitoria-Gasteiz	DFA

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Luis Ganuza	Barrundia	UAGA
Luis María Subijana	Zigoitia	---
José Antonio Ocio	Zambrana	DFA
Fernando Ruiz de Ocenda	Vitoria-Gasteiz	Arquitecto

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Pilar Monjas Rubio	Arabako Lurralde Antolakuntzako arduraduna

Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Leire Zuazo Urkaregi	Inguru
Estibaliz Nanclares Medrano	Inguru
Unai San Martín Los Arcos	Inguru

Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Fernando Uriondo Ispizuak, Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendariak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariak eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko

gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-parte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrerako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Iñakik.

Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Iñakik, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
 - o Paisaia
 - o Ingurune fisikoaren antolamendua
 - o Klima aldaketa
 - o Babestutako Naturguneak
 - o Korredore ekologikoak
 - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
 - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
 - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
 - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
 - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - o Hiriz hazkundera
 - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak

- Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - Bide-mugikortasuna
 - Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - Talde mugikortasun multimodala
 - Eredu logistikoa
 - Ura
 - Energia
- Zeharkako alderdiak
 - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
 - Lurraldeen arteko harremana
 - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Leirek:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta, ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Horretarako bi panel ditu talde bakoitzak, landutako ideiak adieraziko dituztena (post it bat, ideia bat) eta landuko duten gaiari buruz oinarrizko dokumentuan datozen ideiak adierazten direna. Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehituko ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

1. Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

1.1. Paisaia

- 1.1.1. Herrien izaera kontuan hartzea; ikustea zein herrik hazi behar duten eta nola. Saihestu egin behar dira Etxebarri-lbiña eta Argomanizeko ereduak, eta, Lagran eta Mendozakoak dira, besteak beste, jarraitu nahi diren ereduak.
- 1.1.2. Landa-eremuak birpopulatzea, bertako jardueri eutsiz eta horiei kalterik egiten ez dien beste jarduera osagarri batzuk abiaraziz.
- 1.1.3. Paisaia baliotsuak zein diren zehaztea, bai bereziak direlako bai ohikoak direlako. Alde horretatik, helburuarekin bat datorren erabilera-araudi bat ezarri behar da, debeku zorrotzik gabekoa. Gure ustez, araudia paisaiak mantentzean bakarrik zentratzen da, eta horrek mugatu egiten ditu betidanik egin izan diren jarduera ekonomikoak, hain zuzen ere, orain zaindu nahi den paisaia osatu dutenak.
- 1.1.4. Erreferentziatzat hartzea azpiegitura berdea, lurraldea antolatzeko ikuspegi ekologikoa, eta ez beti hiri-lurzorua, bestearen gaineko baldintza gisa jarriz. Hartara, Gasteizko makrozefalia saihestuko da.
- 1.1.5. Paisaian pentsatzen denean hiriko jendea hartzen da kontuan eta ez herrietako jendea. Paisaia hori herrietako jendeak sortu du, horiek mantentzen dute, eta ez da kontuan hartzen lan-iturri bat dela eta erabilera batzuk dituela, eta paisaia horrelakoa dela jendeak landu duelako.
- 1.1.6. Uste dugu gehiegi eta zorrotzegi babesten dela paisaia.
- 1.1.7. Inoiz ere ez ahaztea gizakiak betidanik eraldatu duela paisaia eta horrela ikusi behar dela beti.
- 1.1.8. Hiri-paisaia, herriak: etxebizitza handiak zatitzeko aukera ematea, aletegien eta abarren erabilerak aldatu eta bizileku gisa erabiltzea eta herrietako etxebizitzak birgaitzea.

1.2. Ingurune fisikoaren antolamendua

- 1.2.1. Desoreka dago LAGetan (Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak) eta LPPetan (Lurralde Plan Partziala) hiria eta landa erregulatzeko proposatzen denaren eta benetan egiten denaren artean; izan ere, alde batera uzten da, eta behar denean, erabili eta hiritartu egiten da.
- 1.2.2. Desberdin tratatzen dira ingurunea aldatzeko aukerak landa- edo abeltzaintza-jarduera bat dela-eta egin behar direnean edo, esaterako, errepide bat eraiki edo aldatu behar denean. Horrek desoreka argia dakar. Irizpide bateratu bat ezarri beharko litzateke.
- 1.2.3. Ingurune fisikoaren antolamendua. Bizilekua eta nekazaritza-jarduerak barne hartzen dituen eredu barreiatu bat bilatu beharko genuke, Frantzia bezala? Zer baldintza eta paisaia-integrazio izan beharko litzateke?
- 1.2.4. LPPek akats teknikoak dituzte, eta denbora behar da horiek zuzentzeko.
- 1.2.5. Saihestu egin behar da ingurumen-arloan soilik oinarrituta dauden kontuak gehiegi arautzea eta horien inguruko debeku zorrotzak ezartzea; izan ere, jarduerak aldarazten dituzte, eta desorekak sor ditzakete horien ondorioz jarduera tradizionalak egiteari uzten bazaio.
- 1.2.6. Autokontsumoa: Erlauntz bat, hamar oilo eta abar izatea jarduera-proiektutik kanpo egon beharko litzateke.

1.2.7. Baserriak eta hainbat herriren arteko poligonoak sustatzea, zerbitzuak multzokatzeko.

1.3. Babestutako naturguneak

1.3.1. Gaur egungo araudia sinplifikatzea: Europakoa, autonomia-erkidegokoetakoa, foruetakoa, udaletakoa, kontzejuetakoa.

1.3.2. Kudeaketa-planak partaidetza-prozesuen bitartez onetsi eta kudeatu beharko lirateke, eta kontuan hartu beharko lirateke gertaera batzuek sortzen dituzten zailtasunak; esate baterako, parkeek administrazio-mugak gainditzea baina bertako guardek gainditu ezin izatea.

1.3.3. Parkeen eta Kontserbazio Bereziko Eremuen aitortpenek kontuan hartu behar lituzkete paisaia kontserbatu beharreko leku bihurtu duten jarduera tradizional estentsiboak.

1.3.4. Babestutako parkeak eta Kontserbazio Bereziko Eremuen lurralde-eremuak bat eginaraztea eta argitzea zein diren erabakitze eta betearazteko organoak.

1.4. Orokorra

1.4.1. Paisaia-muga gehiegi daude eraikuntzari heltzeko orduan, estetikan eta eraikuntzan oinarritutako mugak direla eta.

1.4.2. Gasteizeko makrozefalia; gainerako guztia "soberan dagoena" dela uste da.

2. Landa-ingurunea

2.1. Landa-ingurunearen garapen ekonomikoa

2.1.1. Hirigintzako zein jarduera-proiektuetako araudiak malguago bihurtzea, errazagoa izan dadin nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera bati ekitea.

2.1.2. Udalek nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera gizarte-intereseko jardueratzat jotzea. Hori errazagoa izango da udalerrri txikienetan, jarduera berriak sustatu ahal izateko, gaur egun nekazaritzaren mundua asko ari baita aldatzen. Hala ere, kasuan kasu aztertu beharko litzateke hori.

2.1.3. Ekoizpen txikiaren alde egingo duten arauak bilatzea. Legerian ez dago eskala hau, eta jarduera tradizionalekin jarraitzea ezinezko egiten duten baldintzak eskatzen dira. Ez dago baimenduta eraikitzea, ez baduzu abelburu edo fruitu-arbola nahikorik.

2.2. Landa-ingurunearen antolamendu fisikoa

2.2.1. Kontuan izatea nekazari-abeltzainak bertako biztanle izatea sustatzen dela eta hori izango dela modu bakarra Araba Erdialdea desertu bat ez izateko. Horretarako, baina, baliabideak eman beharko zaizkie.

2.2.2. Frogatzea landa-ingurunearen ekoizpen txikia errentagarria eta iraunkorra dela, eta merkatu jakin batzuk sustatzea. Horretarako, ekoizpen txikiaren alde egiten duten araudiak bilatu behar dira.

2.2.3. Bertako nekazaritza-komunitateari eutsi behar zaio, bertakoak ez diren produktuak ekarri beharrean. Beharrezkoa da 0 kilometroa sustatzea.

2.3. Orokorra

2.3.1. Araba Erdialdea askotarikoa da, eta ez litzateke unitate gisa tratatu behar.

3. Hirigunea.

3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

3.1.1. Hiriguneak dentsitate egokia du eta finkatutako auzo batzuk bakarrik birgaitu behar dira; esaterako, Adurza, Ariznabarra zaharra eta Aranbizkarra. Hartara, bertako eraikinek edozein eraikin berriren zerbitzu berak izango dituzte. Horrez gain, alde zaharrean eraikinak birgaitu eta beste batzuk bota egin beharko dira.

3.1.2. Auzo batzuetan dentsitatea handitzea, esaterako, Lakuako zati batzuetan; bertan, kaleak zabalegiak dira, erdibitzaileak dituzte eta eraikin batzuek beheko solairua eta beste hiru solairu dituzte.

3.1.3. Birgaitzea eta birsorkuntza sustatzea, lurzoru gehiago ez okupatzeko bitarteko gisa.

3.1.4. Beharrezkoa da baliabide ekonomikoak edukitzea, birgaitzea gentrifikazio-egoerarik sortu gabe egin ahal izan dadin.

3.1.5. Dentsitatea; zer da hirigune dentso bat? Esaterako, Salburuako dorreak? Eraginkorrak dira, baina paisaia hondatzen dute eta ez dira beharrezkoak.

3.2. Metropolialdeak eta transformazio-ardatzak

3.2.1. Ez dago adostasunik eraikinen jarraitutasunari dagokionez. Fenomeno hori deuseztatu daiteke garrantzi handiagoa emanez bigarren eta hirugarren mailako guneei, lehen mailako guneak gehiegi garatu daitezkeen saihesteko; horretarako, garraio publikoa indartu behar da, gune horiek guztiak elkarri lotuta egon daitezkeen.

3.3. Hiriaren hazkundera

3.3.1. Industria-lurzoruei "barnerantz hazteko" printzipioa aplikatzea, alegia, lehenago erabili diren lurzoruak ez abandonatzea jarduera bertan behera geratu delako, eta ondoren beste leku berri batzuk okupatu.

3.3.2. Hiri-baratzeak sustatzea

3.4. Orokorra

3.4.1. Hiri trinkoak: biztanleria-, ekonomia-, gizarte- eta jarduera-dentsitate handia; funtsezkoa da dentsitatea biztanleriarena bakarrik ez izatea, bestela lotarako auzoak izango ditugu.

3.4.2. Baso jangarriak sustatzea

3.4.3. Hirien ahalmenari buruzko hezkuntza ematea eta hori zabaltzea: hiriko azalera eraikia aprobetxatzea; esaterako, alferrik galdutako estalkietan, etxebizitzak baino askoz ere gauza gehiago egin daitezke: energia eolikoa, fotovoltaikoa, elikadura, hondakinak, lurzoru emankorra, hondakin organikoak, zuhaitzak, parkeak, etab. Baina ez dira erabiltzen.

4. Mugikortasun jasagarria eta azpiegiturak

4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

4.1.1. Pentsatu behar da bidegorriak kirolarientzat direla, baina baita lanera doazentzat ere; horien proiektuak egitean saihestu egin behar dira 90 graduko birak, maldak, etab.

4.2. Talde mugikortasun multimodala

4.2.1. Gune askoko hirigune batek garraio publikoa behar du etxebizitzetatik industria-, administrazio- eta aisialdi-eremuetara.

4.2.2. Landa-garraio publikoa sustatzea, bereziki gazteentzat eta prestakuntzari lotua; horren bidez, ahalik eta gehien berdindu behar dira landa-ingurunean eta hiriguneetan bizi diren gazteen aukerak.

4.3. Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna

4.3.1. Inguruko lurraldea lotzea

4.3.2. Tranbiak ez luke hirigunera sartu behar eta jende asko mugitzen duten industria-eremuetara heldu behar luke.

4.3.3. Tranbia beharrezkoa al da Gasteizen? Auzoak elkarren artean lotzen dituzten mikrobusen bidez konpon zitekeen. Baina dagoeneko egina dago.

4.3.4. Garraio-azpiegitura handiak (AHT) aztertzeke azterlanek lurralde mailakoak izan behar dute; noski, ezin da leku guztietan geratu. Erabaki garrantzitsuenak hartuta daudela ulertzen da.

4.3.5. Gasteizko aireko garraioa indartzea eta probetxu gehiago ateratzea, baita bidaiariei dagokienez ere.

4.4. Ura

4.4.1. URAK gehiegizko kontrola du eta ez gatoz bat haren irizpide batzuekin: ubideen mantentze-lanak, uholde-arriskua, etab.

4.4.2. Egin daitezkeen laborantza sorta zabaltzea ahalbidetzen duen ureztapen-politika.

4.4.3. Urak denona izaten jarraitzea; nahiko urria da, beraz, ureztapen-putzuei beren horretan eutsi behar zaie.

4.4.4. Euri-urak bereiztea hiri-lurzoruetara sartu baino lehen, eta hirigunean ur horien bereizketa eta berrerabilera sustatzea.

4.4.5. Lurraldeko baliabide hidrikoaren kudeaketa sustatzea, etorkizunean estrategikoki erabiltzeko; horretarako, baliabideak pilatu egingo dira eta erabilera desberdina emango zaie, lurraldearen ebaluazioaren arabera: hornikuntza, emari ekologikoa, ekoizpena, etab.

4.4.6. Ez da jaso ureztapenaren gaia, laborantzen dibertsifikazioa handiagoa izateko asmoz. Konponbidea putzuak erabiltzea da.

4.4.7. Batera kudeatzea Gasteizko eta Arabako Lautadako herrietako uraren arazketa.

4.4.8.Hiriguneetan landare-estalkien alde egitea, teilaren ordeztu, eta landare-estalki horiek euri-uren erreserben bidez mantentzea.

4.5. Energia

4.5.1.Sarearen bidez konektatutako energia-sorgailu txikien sorrera sustatzea; horiek egon daitezke etxebizitzetan, auzoetan, industria-pabiloietan, etab.

5. Zeharkako alderdiak: generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte-hartzea

5.1. Klima aldaketa

5.1.1.Etorkizunean tenperaturak gora egingo duela ikusita, hemendik aurrera uraren kudeaketa planifikatzea, lurraldean baliabide horren erreserbak areagotzeko plangintzak eginez.

5.1.2.Etorkizuneko basoak eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak planifikatzea, horien lurraldetasunari dagokionez.

5.1.3.Eguneroko bizitza hobetzeko tresnak erabiltzea, alegia, bizitza pertsonaleko jardunbide egokiak.

5.2. Parte hartzea eta gobernantza

5.2.1.Gizarte-inplikaziorik eza; hezkuntzatik sustatu beharko litzateke

5.2.2.Hainbat termino eta esamolde argitzea; adibidez: bigarren etxebizitza, gobernamentua eta parte-hartzea.

5.2.3.Herritarren parte-hartzea sustatuko duten komunikabideak babestea.

5.2.4.Glosario bat sartzea LAGen dokumentuan.

5.2.5.Parte-hartzearen asmoa ona da, baina, esaterako, larunbat batean egiten bada, zaildu egiten da.